

Justo Garate, etnologia lanetan



Juan **San Martin**

Justo Garate Arriola bergararra, inork ez du zalantzan jartzen gizon jakitun, langile eta kultura gaietan kezkatua genuela. Medikuntza zuen bere ofizioa eta zientzia horretan egin zuen lana argi dago Roberto M. Aprá-ren *Educación y medicina. Entre médicos y pacientes* (1993) deritzan liburuan. Gainera, azken kapituluan bertan agertzen zuen Justo Garatek Gregorio Marañonekin gutunez izan zituen harremanak eta horren estudio bat, 165-187. orrialdeetan, eta jarraian Justo zenak medikuntzaz idatzi zituen lanen bibliografia, 188-189. orrialdeetan. Liburu horri medikuntzaz ezer erastekotan ongi letorkio hil berrian Jose Luis Goti Iturrigak argitaratu zuen *In Memoriam (ikus Gaceta Médica de Bilbao, vol. 91, nº 3, Jul. Sep. 1994, pp. 87-88)*. Bestalde, kontutan hartzekoa deritzat Mendozan (Argentina) Espainiako Consulado General-ak 1989an argitaratu zuen *La inmigración española en Mendoza. Cuatro estudios monográficos* liburuak 73-111. orrialdeetan jasotzen dituen berri jakingarriak Justoren bizitzaz eta medikuntzaz.

J.Garatek, Espainiako zenbait Unibertsitateetatik igaro ondoren, Alemanian burutu zituen medikuntzako ikasketak eta, bere kezkatu izanak nonbait, hango Argien garaiko kulturak kutsaturik bera ere gizon ilustratua bihurtu zuen. Baina aitortu beharrezkoa zait bergarar baten-tzat, edonola ere, hunkigarria dela ilustrazioaren eragina, bertako historian Azkoitiko "zaldun-txo" haiek heuren hirian sortu zuten Erret Mintegi hura kontutan hartzen baldin badugu. Nik uste, aldi bereko bi korront horiek izan zutela eraginik Justo Garategan.

Egileen artean, besteak beste, Wilhelm von Humboldt aurkitu zuen, Berlingo Unibertsitatearen sortzailea eta Euskal Herriaz eta bere hizkuntzaz hainbeste arduratu zen filologo, bere jakintzaren ospari esker Europako hizkuntzalarien artean euskararen ikerketetarako berebiziko harrera ona lortu zuena. Hortik ekin zion, prusiar horren ibilerak eta azterketak ezagutzetik, hemen garai berean aritu ziren euskalarienak ere ikertzeraino. Humboldt-ek filologia bidea ireki zion. Une berean, gai horietaz hemen harremana izan zuen Astarloa eta Mogelengana eraman. Hortik sortu zitzaion *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel* (1934) liburu. Baina ordurako, esan beharra dut, *Gillermo de Humboldt y el País Vasco* (1925) eta *Correcciones y adiciones al Mithridates de Adelung sobre la lengua cantábrica o vasca* (1933) itzulpena bere oharrez eta Julio Urkixoren aurkezpenez Eusko Ikaskuntzaren babespean argitaratuak zituela. Jarraian beste zenbait lan, Humboldt-en oinarriturik, Eusko Ikaskuntzaren *Revista Internacional de los Estudios Vascos (RIEV)* aldizkarian. Hortik aparte, baita ere *G. de Humboldt, estudios de sus trabajos sobre Vasconia* (1933) eta *Cuatro ensayos sobre España y América* (1951). Azken hau Migel Unamuno eta Justo Garateren itzulpen eta azter lanez.

Saio honetan, etnologia lanak aurkezten hasi baino lehen, aldeztu aurretik xehetasun hauek argitzea beharrezko iruditzen zait, lan horietarako zioa nondik sortu zitzaionaren adibide ditugulako eta horrek ondotik etnologia eta etnografia lanak hobeto ikus eta ulertzera eramango gaituelako.

Bereziki Astarloa eta Mogel ikertu zituen, Gilen von Humboldt-en iritziez gainera bi euskaldunon lanak sakon aztertuz. Jadanik, Paradisoan eta Babel dorrean euskaraz mintzatu zirela uste zuen Paulo Astarloarenei laster antz eman zion fantasiaz beteriko egile baten aurrean aurkitzen zela. Mogel ordea, filologiak jantziago aurkitzeaz gainera, gizon zentzudunagoa iruditu zitzaion. Eta egile honen *Peru Abarka* liburuak etnologia ikerkuntzarako zaletasuna sortu ziola esango nuke. Mogelek, obra horretan, bere garaiko bizikerak eta ohiturak biltzen bai zituen. Liburu hau baserritar jakitun eta barbero edo sasimediku baten elkarrizketaz osatua da. Egileak berak, agiri denez, basarritarraren lekua hartzen du elkarrizketa horietan; baina oroi Juan Antonio Mogel sendagilearen semea zela eta anaia ere sendagilea zuela. Horregatik sendakuntzaz zerbait zekiena noski, barberu "petrikillo" hari egiten dizkion kritike-tan ikus daitekenez eta, bestalde, interesgarria benetan zerri hilketaren bidez anatomiaz egiten duen adierazpen zehatza. Gai egokia bere ofizios sendakuntza zuen Justo Garaterentzat.

Baina liburua hor ez zen mugatzen, ondotik arituko zen euskararen jatorrasunezko adibi-deak eskainduz, hitzen etimologia, esaera zahar, bertso, eta abar. Bizkaitar apaiz euskaltzalea, giputz eta frantsez-euskaldunarekin elkarrizketan, euskalkiak elkarren artean zer nolako aldeak dituzten, baina, ama baten umeak izanik, muinean elkarrengandik zein hurbil zeuden adieraziz. Horrez gainera, oletako burdin lanak, linu ereizetik biltze zein lantzerainoko linuaren penak eta nekeak. Guzi horiek kapitulu bakoitzaren bukaeran gaiotan erabiltzen diren hitz berezien zerrendak jarritz. Ez dago ukatzerik neurri handi batean hortik zetorkiola Justori gai horiek lantzeko zaletasuna. Gainera, *Peru Abarka* liburuaren bukaeran, eraskin gisa, itzulpenaren ereduak eskainiz, Antzinako klasikoen zenbait hitzaldi euskaraz jarriak dakartza: Alejandrok bere gaixotasunean sendagileari esanak, Catilinarene arenga edo erreguzko jarduna bere soldaduei, Germanicorena soldadu matxinatuei, Escipionen jarduna errege gazte bati, Marco Tulio Ciceronek Senatuan L. Catilinarene aurkako hitzaldia eta abar.

Edozein humanistarentzat hain atseginak diren klasiko zahar horiez gainera, bereziki, XVIII. mendeko bizitza eta ohiturak biltzen dituen liburua dugu *Peru Abarka* eta ez da batere harrizkekoa Justo Garategan bere eragina izatea. Horregatik zion Garatek: "Si me preguntaran: ¿Cual cree usted que es el libro vasco cuya traducción es más interesante desde el lado científico?, yo elegiría sin vacilar el *Peru Abarka*".

Bere hilberrikoan esan nuen bezala (ikus *Euskera*, XL, 1995, 593-597. orr.), Justo zena, jakitza bideetan orotariko gai ez interesatu zen, bereziki XVIII eta XIX. mendeetako ikerketaz, historiako G. von Humboldt-i buruz egin zituenak, luze bezain sakonak dira, bizitzaz, bidaiez eta euskal lanez. Haiek izango zituen, *Ensayos Euskarinos-ekin* batera, bere gaztaroko lehen lanak euskal alorrean. Ondotik etorri ziren gainerakoak.

Langile bezala, zer esan? Bere jakin-minaren eraginez bizi guztian eten gabe aritu zen, han eta hemen, hontaz eta hartaz. Medikuntzan, adibidez biologia eta psikologiaren berrehunen bat lan idatzi zituen eta beste hainbeste baino gehiago filologiaren, etnologiaren eta euskal historiaren. Baita ere, toponimiaz lanik ugari agertu zuen eta, beraietan etimologiaren iritziak, beti hain zuzenak ez bazituen ere saio gogoangarriak dira, kontutan hartzekoak noski. Edozein gai hartzen zuelarik ere, maisuki agertzen zen gehienetan. Bere intelektu ahalmenen adierazgarri hor dugu *Cultura biológica y arte de traducir*. Zernahitarik bada hor eta, niri behintzat, ordu atseginak eskaintzeaz aparte gauza asko irakatsi dizkit, batez ere gizonaren dimentsioa eta adimenaren neurriak erakusten dizkigulako. Beste liburu aipagarri bat, bere bizitzako azken urteetan burutu zuen *Un crítico en las Quimbambas. Autobiografía y escritos* (1993), V. Gallastegi bergarar alkateak aurkeztua, J.A. Ascunze-ren atzizkiz eta E. Amezagak Justo Garate zenaren bibliografiaren osatu zuen lana eransgarri. Baina esan beharra dut Amezagak, gehienetan bezala, nahasmenduak sortzen dituela eta liburuen zerrendan bertan ere ez dau-

dela argitaratu zituen guziak eta, horrez gainera, bertan agertzen dituen titulu batzuk inoiz ez direla liburuak izan, saiaera artikulua baizik. Dena dela, Justo zenak hor agertzen ditu bere idazlanen zenbait gehigarri irakurleen argibiderako.

Baina hori gora-behera, Justoren bibliografiaz zehaztasuna nahi duenak, bada-ezpada, ikus ditzala Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*, III eta IX. liburukietan 577-580 eta 402-404 orrialdeak (Añañamendi Argitaldaria. Donostia, 1973 eta 1975. urteetan argitaratuak) eta horien jarraipenezko *Eusko Bibliographia*, II liburukiaren, 541. orrialdea (Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo, 1986).

Jadanik, hasteko agertu beharrezkoa iruditzen zait, ez nukeela ausartegia izan nahi pertsoneri buruz iritziak ematean. Sokratek antzina zioenez, gauzek gizaki bakoitzagan era desberdinezko ikuspegiak dituzte; gure esaldiak dioen bezala, buru hainbat aburu, eta nekeza da Justo bezalako humanista eta erudito bati buruz aburu zehatzak agertzea, hain zabala zenez gizon honen kultura eta horren barnean landu zuen alor oparoa. Horregatik, etnologia soilaren haritik jardungo naiz, batzutan adierazpenez bestelako gaietarik zerbait agertuarren.

Handia zen benetan gure gizonaren kemena eta beregan hartzen zituen gaiak garapez burutzeko jarreraren bizitasuna. Baina berezko bizitasun horrek gainak hartzen zizkiolarik luma su bihurtzen zitzaion, euskaldunok geure izatez daramagun seta indartuz eta inoiz gauzak bere senaren neurritik atereaz. Adibidez, Strabonek kantabriar emakumeen azkartasuna adieraztean aipatuak, gero gehienek "*couvade*" (*Covada*) hitzez erabiliko zuten hura, XVII. mendean Rochefort-ek hemengotzat hasiera eman ondorean era askotako iritziak barreiatu ziren, baina iritziak iritzi. Berez iluna zen gai horretan ez zuen merezi gogorregi jarduterik eta jarrera hori erakutsi zuen Julio Caro Barojaren aurka hain gogor sartzean "Aranzadi" Zientzia Elkarteak Telesforo Aranzadi zenari 1962an omenez eskaini zion *Munibe* zenbaki berezian. Etnologo autoritatea ukatzera arte, gai horietan zerbait egin dugunon aurrean. Gauza bat da arrazoia izan edo ez izan, baina beste bat agertzeko era. Hala ere, hutsegiterik bazen edo ez bazen, guretzat Caro Baroja etnologia eremu horretan izan dugun maisurik gorenengoa da.

"Couvade" delakoaren auziaz lasaiago arituko naiz, saio honen azkenaldian. Arriskugarria izanarren, ondo merezi bai du Garateren ikuspegia nondik nora ohinarritzen zen jakiteak. Izan zuen auzi eztabaidagarria gora-behera, XVIII eta XIX. mendeetako gaietan hain aditua zen J. Garatek aitortu zuen J. Caro Barojaren *La hora Navarra del s. XVIII* liburua bikainenetarikoa zeritzaiola.

La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel (1936) liburuan ikutzen zituen gairik gehienak ondoko urteetan gehigarri eta xehetasunez ikertuz jarraituko zuen bere azken egunetara arte: euskal hiztegiari bilketazko gehigarriak eskainiz, lekuizeneri etimologiak proposatuz, etnologiaz aurkitu zituen zenbait puntu zalantzazko aztertuz, txertatze edo bakunatzearen lehen berriak ikertuz eta abar.

Esan beharrezko iruditzen zait etnologiaz erabili zituen gaiak ez zirela asko, baina hartzen zuena hartzen zuelarik, gai bakoitza behin eta berriz erabiliko zuen, aldi bakoitzean agiri edo iritzi berriak gehituz edo sakonduz; Euskal Herrian bertan edo herbesteko egileetan aurkitzen zituen agiri berrien arabera ikuspegi berria eskainiz edo lehengoa indartuz. Berakin Alemanian medikuntza ikasketak gainditzean lagun izan zuen Fernando Zuloaga eibartar adiskideak maiz esan ohi zidan: Justo, berez argia izatez gainera, lanen bat hartzen zuenean, azkenburura arte exhaustiboki aztertzen duen horietakoa zela.

Horren adibidez, har dezagun "Erleak eta heriotza". Ohitura zaharrea, nagusia edo ugazabaren heriotzaren berri erlauntzari ematearena. Lehenago R.M. Azkuek *Euskal Herriaren*

Yakintza (1935) lehen liburukiko 428-433. orrialdeetan bildu zituen zenbait tokitako adibideak, eta J.M. Barandiaranek bere *Obras completas* (1972) haren lehen liburukiko 81-82. orrialdeetan zioenez, Liginaga (Zuberoa) herriko ohituran erleei era honetara adierazten omen zieten: "latzar zite, buruzagia hil zaizie" (= Iratzar zaitezte, buruzagia hil zaizue). J. Caro Barojak Bidasoako Beran jasotako beste adibide jakingarri bat zekarren (ikus *Los Vascos. Etnología*. 1949, 344. or.), non esaten zen:

*Erletxuak, erletxuak
egin zute argizaria.
Nagusia il da, ta
bear da elizan argia.*

J. Garatek ordea, gogotik hartu zuen gai hori, bildutako laneri beti gaineratzen zizkien bere aurkikuntzak. Hara gai hortaz, ohi zuen eran, idatzi zituen sei lanak: "La muerte del Patrón y las abejas", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, II, 1947, 545-546. "La muerte del patrón. Notas sobre la abeja en el Folklore", *Runa*, 1949, 205-209. "Boinas, armas y abejas", *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, II, 1951, (nº 7), 232-233. "Las abejas y la muerte", *Munibe*, V, 1953, 103-105. "Erleak ta eriotza", *Euzko-gogoia*, V, 1954, 122-123 (A. Ibiñagabeitiak euskaratua). "El aviso a las colmenas de la muerte del dueño", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, VII, 1975, 5-11; azken hontan non agertzen zuen bibliografía osatua (baina hutsune nabaria agertzen da bertan J. Caro Barojarenik ez aipatzean), gero, hurrengo zenbakian zuzenketazko eraskin bat dakar 406. orrian; eta, geroago osagarritzko oharrak berriz "Adiciones y correcciones", erlauntzari jabearen heriotza aditzera ematez, *CEEN*, VIII, 1976, 305-306. orr. Esan bezala, bilketaz edo aburuz, beti ihardun bidean iraunkor, zerbait gehituz eten gabe aritzen zen. Erleei buruzko lehen lan hartatik hogeta hamazortzi urteren buruan oraindik jarraitzen zioen lan berari. Hori ikus dezakegu *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* hortan, Jabier Larraiozek Elorz haraneko Zulueta herrian egiten zenaren berri ematearen ondorioz, Justok berean gaineratzen zion Sunbila herriko jatorria zuten Iriarte familikoek ohitura hori Argentinarraino eramane zutenaren lekukotasuna. Bai hori aurkitu ere gure gizonak.

Behin beragan hartutako lanak nola jarraitzen zituenaren beste adibide bat dugu J.A. Chaho-k 1830-1835.ean Nafarroan zehar egin zuen bidaiarena. Justo zenak 1933. urtean gaztelerara itzuli zuen zenbait ohar eta atzizkia ezarriz, *Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos*, (Bilbo, 1933), Auñamendi Argitaldaria 1976an berargitaratua. Bere lanen jarraitzeaz, ohi zuen eran, lasaiago, luzeago eta zorrotz agertu zuen saio gisa "De nuevo con el suletino Chaho", *Bol. del Instituto Americano de Estudios Vascos*, II, 1951, 8-17. orr., zuberorarrari buruzko kritika zehatza azalduz, haren fantasiak salatuz eta, ez zen gutiagorako, besteak beste, Zuberoko **Aitoren** (gure **Aitonen**, erderazko *Hidalgo, hijo de algo*) gaizki ulertzetik jainkoki mailara eroanaz Aitor mito bihurtu zuenarentzat. Gero, *Un crítico en las Quimbambas* liburuaren 202-212. orr., berriz bilduko zuen lan hura.

Antropologiari buruzko iritzietan, gure mediku jakitunak, *Bol. I.A.E.V.* aldizkari beraren VII, 1956, 24-31, 79-90 eta 146-156 orrialdeetan "Falacias de la antropología partidaria" izenburudun lanean, antropologiaren irakasbidez, ondo merezia zuen astindu ederra ere eman zion Misael Bañuelos-i, honen *Antropología actual de los españoles* (1941) liburuan jartzen zituen astakeriegatik. Izan ere, Justo sendagile izateaz gainera antropologia zientziaz jantzia zen eta inor ez da hortaz harrituko, zeren oroi Telesforo Aranzadi herikide eta lagun zuela, eta gai hortaz maisu gorena genuenaren ikerkuntzak, hain senez eta bikain burutuak, hurbildik ezagutzeko aukera eduki bai zuen, kritika horretan bertan agertzen dituen aipamenak ondo erakusten digutenez.

Bi lan horiek berriz *Un crítico en las Quimbambas*-en jasotzeaz asmo ona izan zuen. Guztiok ezagutu beharrezkoak genituen eta, zeren bere garaian hemengo diktadura egoeratik ez bai zen zabalkunde modurik. Behar bada, bide bera hartu behar zuen S. Madariaga, C. Sánchez-Albornoz eta J.L. Borges jaunei egin zizkien kritikekin ere. Ikus horien berri *Euskera*, XL, 1995, 596. orrialdean agertu onua.

Cultura biológica y arte de traducir (1943) Argentinan deserriraturik aurkitu zen garain argitaratua, esan dudan bezala, orotariko gaiez egina zuen eta gizonaren jakintza ezagutze-ko liburu egokia zaigu. Bertan, labur baino laburrago, telegrafikoki esango nuke, Mitologia eta Etnologia gaiak dakartza. Irizpide soilak eskaintzean, non aipatzen zituen Antzinako klasikoe-tatik egungo Euskal Herriko usarioetara artekoak. Liburuaren irakurketatik kontura daiteke botanikaz ere jakitun zela. Eta hori guti balitz, landareen lur aldaketaz ere arduratu zen, batez ere Amerikatik Europara eta hemendik hara. Liburu honek, lehen parteko 20-74. orrialdeak hortaz ditu. Haritz, zuhaitz beneragarriatik, argibide batzuk Ustaritzeko biltzarra eta Gernikako batzarra bezala, harizpean besterik non egiten ziren batzarrak. Alemanetik gazte-lerara egin diren itzulpenetan (**h**)aritzaren orde **artea** jartzearen okerra zertatik zetorren argi-tzen du, baina irakurleak zalantzarik izan ez zezan baita ere argi ipini Alemanian arterik ez dela. Bere ustez, mitologiatik etnologiara eta hemendik politikara igaro zen ohitura zaharra omen haritzarena, baina kontu izan ongi itzultzeaz.

Ondotik, liburu berean, 248. orrialdean, Zanpanzarren etimologiaz oso zuzen zebilen zalantzarik gabe, eta jarraian, 249.ean, Ugarte dela eta, gauza bera esango nuke, gure Zuzen Garate (batzutan izenordetzat "Zuzen" erabiltzen bai zuen) ziurtasunez ari zela. Eta liburuaren 251-252.etan, aurkikuntza bikaina benetan Deustuan ahoz ezagutzen zen **Dineperiaga** lekui-zenari antz eman eta igartzean, zeren egin zituen azterketen arabera, agiri zaharrak lekuko zituela, erakutsi bai zuen **Doneperuaga** izen jatorra. Deustuko San Pedro parrokiaren tokia noski. Toki horren adibidea ematen duen **-aga** atzizkia berakin duela. **Done** (= santu) izenetan, nik dakidanez, era hortan, ordurarte Erdi Aroko agiritan azaltzen zen **Done Miliaga** baizik ez zen ezagutzen.

Etnologiarekin batean, baina hontatik hurbil, gutienez berrogeita hamabost urtetan irau-penez landu zuen beste sailletako bat dugu euskal hiztegiaren gehigarri osatu zituen zerren-detako emaitzak, "Contribución al diccionario vasco" izenburuz. Bilketa eta azterketa horiek 1930ean hasi zituen Eusko Ikaskuntzaren *RIEV*-en, gero *Bol. RSVAP*, Nafarroako *Fontes Lingvae Vasconvm* eta Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkaria zehar jarraituz. Bilketa garrantzi-tsua noski, batzutan etimologia zalantza-koak emanarren. Jose Migel Barandiaran zenak gomendatzen zigun eran jarraitu zuen, lanak gordeaz pilakatu gabe ateratzen ahalegintzea, zuzenketak eta gehigarriak egiteko aukera noiznahi har ditzakegulako.

Bere gurasoegandiko euskara eskoletan baztertu ezezik zigortzeraino eramateari buruz egin zituen ikerketak gogoangarriak dira, "El anillo escolar en la Proscripción del euskera" izenburuz *Instituto Americano de Estudios Vascos* eta *Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* erakundeen boletinetan argitaratu zituenak.

Ez zuen euskaraz asko idatzi, neri gutunik gehienak hala eginarren, baina gure hizkun-tzaren bizitzaz eta iraurarazteaz ahalegindu zen eta Argentinan herbesteraturik ere etxeko hizkuntza euskara zuen, hainbeste lagundu zion bere emazte Itziar eta seme-alabekin. Denak ezingo dute esan gauza bera. Bere idazkiren baten zioen, neurri handi batetan, Aingeru Irigarai zenari zor ziola euskaltzetasuna, baina baita ere Alemaniako egotaldiari eta besteen hizkuntzak ikasteari. Eta gure egunotan oraindik badira esaten digutenak, euskaldunok mundu zabalagora begiratu beharra dugula geure hertsitasunetik irtezeko. Gaur hori diotenek, atzo "hable en cristiano" esaten zigutenak noski.

Oraingo euskara batuaren arauak ez zituen ondo hartu. Hau ere esan beharra dut, euskalkiak eta gurasoegandikoa zituen maite. Gutunezko harremanetan esaten nion, nik neuk ere gurasoegandikoa nuela maite, baina euskaldun guziak nituela anai eta munduan beste hizkuntzek hartu zuten indarbidea batasunean zegoela. Bestalde, oroitarazten nion, euskaldunok geure historian inoiz baino idazle gehiago eta, ikastoleri esker, eskola maisu-maistrak ere bai eta guzien gogozkoa zela hizkuntz idatziaren batasuna, baita ere oraingo komunikabide berriak euskaldunok elkarrengandik inoiz baino gehiago hurbiltzen ginduztelako. Bestalde, hizkuntz batasunaren asmoa eta gogoia ez zirela oraingoak, horren premia eta beharra erakutsi zigutela, besteak beste, aspaldiko Leizarrak eta Axularrek heuren liburuen hitzaurreetan, baina hain gogoko zuen Juan Antonio Mogelek ere bai *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteak* (1800) liburuaren hitzaurrekoan eta hainbeste goraiatzen zuen Azkue berak *Gipuzkera osotua* (1935) deritzaion liburuarekin lehen araua serio eta zehatzak eskaintzean. Nekez onartzen zituen argudio hauek. Eta min hartu zuen esan nionean, erdera batuan idazten zuten euskaldunik gehienak euskara batuaren kontra zeudela. Hala ere, lagun zintzok izaten jarraitu genuen. Batzutan gauzak zuzen esatea baino hoberik ez dago.


Bere beste lan asko izan ziren historian zehar hemendik igaro ziren bidailari arrotzek Euskal Herriaz eta euskaldunoi buruz eman zituzten berriak jasotzea. Horietako gehienak hemengo historiaz eta bizitzaz, baina bada horietan hizkuntz eta etnologiaz zer ikusirik zuten gai berezirik ere. Zenbait hizkuntza jakiteak lan hortarako egoki laguntzen zion eta Eusko Ikaskuntzaren lehen aldiko *Revista Internacional de los Estudios Vascos (RIEV)* hartako 1930-1935. urteetan bidailarien berriemate asko agertu zituen. Zer esanik ere ez, lan horietan oinarriturik egin zuela *Viajeros extranjeros en Vasconia* liburua, Eneko Mitxelena izenordepean Buenos Aires-ko Editorial Vasca "Ekin"en 1942. urtean argitaratu zuena. Argialetxe berak berrargitaratu zuen, gehigarri batzuk erantsiz, 1989an. Liburu hortan orotarik aurkitzen da, gehiena historiari dagozkio noski, baina gainerakoan ere zernahitarik bada. Egileak, azterketa lan ona agertzen du, zuzenketaz eta kritikaz zenbait ohar gaineratzen dizkie arrotz bidaizale hoierei, beti agiri zehatz eta fidagarrietan oinarriturik. Liburu horren harietatikoak ditu ondoko urteetan landuko zituen gaietarik zenbait.

Adibiderik jartzekotan, oroitzen naizenen artean behintzat, hor dugu, *Bol. R.S.V.A.P.*, XIV, 1958, 69-74 orrialdeetako "Aspecto etnográfico de pretéritas descripciones de viajes por alemanes en España" izenburuz argitaratu zuen hura, 1760tik 1866ra, mende oso batetan agertu ziren bidailariek zer zioten hemengo etnografia gai batzuri buruz. Rigel-ek euskaldun baten irudia zekarrela, idi uztartuen gurdi gainean, baina beste batzuk gurdiaren soinu txistukariak harritzen zituela, horren zergatia ulertu ezinik. Humboldt-ek, soinu horren deskribapena egin ondoren, jasotako esaldi hau agertu zuela: "Idiak erasi beharrean, gurdiak". Ondotiko oharrean, irakurleok jakitun jartzearren, oroitarazten du Telesforo Aranzadi arduratu zela bere lanetariko batetan gurdiaren egituraz eta ohituraz. Baumgärtner-ek Tolosako gurdi baten adierazpena egin zuela eta Wikikomm-ek beste horrenbeste Somorrostron. Wilhelm Filchner ordea, inor baino lehen ohartu zen gurdi soinu horren zergatiaz, mendi-bide meharretan gurdiak urrutitik elkar entzun ahal izateko, batak edo besteak lehenengo aurkitzen zuen toki zabalago batean gurutzatzen uzteko itxaro zezan. Bergh-k Mondragoeko baserrien adierazpena egin zuen. Bilboko ijitoez idatzi zuten Jariges eta Fischer-ek. Baumgärtner-ek Irungo kapelaren berri eman zuen eta Loning-ek gauza bera Gipuzkoako zenbait herritakoena. Wolzogen eta Rosen-k euskaldunen janzkeraz idatzi zuten. Era horretakoak dira Garatek bidailariengandik jasotakoak.

Elezahar edo kondairaz ere arduratu zen, *Bol. I.A.E.V.*-en horietako batzuk argitaratu zituen, Leireko Virila-rena adibidez. Eta bere irakurketa ugariak hizkuntza askotan egiten zituen, herbestekoen eta hemengoan konparaketak egiteko aukera zuen. Horren adibide labur-



Ezkerretik eskubira: Dr. Justo Garate, Telesforo Monzon, Itziar Arostegi Garateren andrea eta Dr. Jose Mujika. Donibane-Lohizune, 1964. urteko apirilean. (Juan San Martinen argazkia).



Wilhelm von Humboldt.

tzat aipa nezazke "Costumbres y leyendas paralelas" (*Bol. R.S.V.A.P.*-en, VII, 1951, 599. or.), liburuotan zetorrenaren arabera berak zertzuk ikutu zituen azaltzen diguna.

Erdi Arotik Pizkundera arte euskaldun emakumezkoek heuren burua zapiz estaltzeko adar-formadun apaingarri haietaz eta aldi berean horrekin adierazi nahi zen sinbolojiaz zenbait lan idatzi zituen, *Príncipe de Viana eta Bol. I.A.E.V.* aldizkarietan.

Badira bere lanetako batzuk medikuntzazkoak izanarren etnologia ikutzen dutenak, 1930. urtean *Euskalerrriaren alde* aldizkarian argitaratu zuen "La medicina de los euskaldunes" zeritzan hitzaldia. Behin baino gehiagotan goraiatu zuen M. Aranburu eta M. Bago Debako osagileek Diputazioaren laguntzaz bere sorterri zuen Bergaran 1899an elebitara, gazteleraz eta euskaraz inprimaturik, argitaratu zuten liburua, *Errico gendeentzat osasun legeac eta Medicantzaco argibideac* zeritzana. Esan beharrik ez dago liburu haren herriagan bere eragina izan zuela. Zientzia hori aurrera joanarren, atzean gelditu ziren bertako gomendio anitz jarraitzen du oraindik herriak. Baina gaur egun liburu hori medikuntzaren historia da. Hala ere, batzutan ezin uka, era berean izan daitekeela "petrikillo" sasimediku dihardutenentzat gai erabilgarrien iturri; idatzi hura ahoz-ahoz erabili delako iritsi zaiena eta denborarekin, uste gabean, etnologia gai bihurtzeraino.

Uka ezin humorezko senaren izpiak agertzen zaizkiola idatzietan, baina nabariago elkarriketetan. Oroitzen naiz, behin nola kontatu zidan Justok aipatu dudana Martin Aranburu Debako sendagilearen anekdota bat. Gasteizko ipiztikuak Debara pastoral bisita egin zuen batean eta alkateak medikua aurkeztu, obispo jaunak, zerbait esan beharrez, galdetu omen zion: "Herri honetan jende asko hiltzen al da?". Eta hitzetik hortzerako ihardespena: "Bai; hemen denak, batzuk lehenago eta beste batzuk geroago".

"Los agotes y la lepra" zeritzon lana argitaratu zuen 1958. urtean (*Bol. R.S.V.A.P.*, XIV, 517-530. orr.), sendagilearen ikuspegitik ez ezik, historia eta etnologiatik ere begiratu da. Asko idatzi da agoteez. Horren berri bazekin Garatek, ematen duen bibliografiaren arabera, baina lastima izan zen lehentxoago argitaratu zen A. Pérez de Goyenaren *El Valle de Baztán. Colección bio-bibliográfica* (Iruinea, 1957) liburuaren berririk ez izatea, elkarrengandik bateratsu plazaratuak zirelako noski. Eta ez Garatek bibliografiaz iturri gehiagoren beharra zuelako, Pérez de Goyenak lan bikain hartan aipatzeko aukerarik izan ez zuelako baizik. Azken batean biak izango bai ziren elkarren aberasgarri. Agoteen antropologiaz ordea, T. Aranzadik egina zuen lanean baliatu zen, bere irudipenak gehituz eta psikologiaz ohar batzuk ezarriz.

RIEV-eko aipamenetarako, liburuen berri emate hartan, batzutan gai bitxiak hautatzen zituen, baina ez nolanhikoak, A. Arciniega eta C. Ferreras-en *Ganadería vasca. Zootecnia. Estudio etnológico y biométrico de las razas mayores del país* (ikus *RIEV*, XXVI, 1935, 389-390) adibidez. Hor ere etnologia lotura aurkitzen zuelako noski, eta aldi berean lanerako ikasgai zitzaiolako.

Euskal kanta zaharrei buruz ere arduratu zen. Gilen von Humboldt-ek argitara eman zuen "Lelo! il Lelo" kanta, Mogelen bidez Markinako Mugartegiaren artxibategitik lortu zuen eskuizkribuak jatorriz eta esanahiaz zer pentsa asko eman zion, hortaz idatzi zituenak erakusten digutenez. Horrez gainera, baita ere, beste zenbait Altabizkargo kanta apokrifoiari buruz. Hortaz idatzi zuen "La primera edición del Canto de Lelo", (*RIEV*, XXVI, 1935, 640-645.).

Justok, ikerketetan aurkitzen zituen zenbait gai berak baino hobeto egingo zezakenei eskaini eta laguntzen ere bazekien. Horren agiri bikaina dugu, Berlinen Humboldt-en gordailuan zeuden euskal musika agiriaren berri Aita Donostiari adieraztea iker zezan eta gainera bere

laguntza eman zionekoa, aldi berean, Humboldt-ekin harremana izan zuten musikariren zerrenda luzatuz. Horren adibide zehatza ikus daiteke A. Jorge Riezukoaren lanean, "Material folklórico de la Collectanea Lingüística de Humboldt. Canción del Vino", *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*, XV, 1971, 91-115.

Jadanik, bere lan oparoa hainbeste aldizkaritan sakabanatua denez, ez da gauza erraza denen berri jakitea. Tamalez, hori gertatu zitzaidan Euskaltzaindian "Satan, deabrua eta euskara. Mito baten inguruan" zeritzan txostena aurkeztu nuenean (ikus *Euskera*, XXXVII, 1992, 1205-1216.orr.). Joan zen mendean zabaldu zen: "Deabrua, zazpi urtez Euskal Herrian egon zela eta ez zuela euskaraz ikasi ez eta bai baizik. Eta hoiiek ere Baionako Santi Espirituko zubia igarotzean ahanzi zituela". Eta, hara hor, saio honen prestakuntzan niharduela non aurkitu dudan Garateren aspaldiko lan bat, "El diablo sabía euskera" (*Eusko Jakintza*, VI, Baiona, 1952, 60-78.orr.). Esana dudan bezala, Garateren etnologia gaiak oso mugatuak ziren eta ez zitzaidan burutik pasa hortaz ihardun zezakeanik.

Etnologiako gai batzuk, bere ustez, ez ziren kontutan hartzekoak ere. Esate baterako, aztikeriaz eta sorginkeriaz arduratzea lelokeria baizik ez zen. "Goethe en euskera. (*Oberón, rey de los Elfos*)", Garatek *Gernika* (Donibane-Lohizune, 1951) aldizkariaren 16. zenbakian argitaratu zuen artikuluan argi zioen: Aztikeriaren mekanismoa, funtsean, populu kutsatuaren tentelkerizat ulertzen zuen, arriskugarria gainera, nazismoa eta komunismoa bezala, zeren prestakuntzarik gabeko jarraitzailez jendetza handia bilduz aldian-aldiko moden mendeko zirelako. Sorginen auzia ordea, bere ustez — etnologo eta medikurik gehienentzat bezala —, ez zen besterik izan, "Sorginetaz sinestea baizik" Sarmientok *Recuerdos de provincia* haretan hain egoki adierazi zuen bezala. Horregatik, Moratin-ek Logroñoko "auto de fe" haiei egin zituzten oharregatik volterrianotzat jotzea tontakeria zeritzon. Baina, aldi berean zioen, uste hori azken muturrera arte eramatea ezinezkoa omen, zeren gizonek heuren irudimenez sortuak psikologian izango bai du beti kulturaren ondasun, ondasunik baldin bada: gizartean aztikeriak laguntzen digu Harri Aro bertatik eta, aldiz, urte guti telebistak. Azken ateraldi honen bezalakoak oso bereak zituen Garatek eta ideia gogoetat sakontzen dugunean oso arrazoizko deritzagu. Artikulu horrek erakusten digu Justori zergatik ez zitzaizkion interesatzen logikaren barnera ez zetozten gaiak. Ulerterreza da bere ofiziozko izatean denboraren galera baizik ez zela. Sendakuntzaz eta ofizio honetako irakasletzak eskatzen zion ardura eta denbora ezin zituen galdu inora eramango ez gaituen bideetan. Horregatik jartzen zion muga hertsia berak aztergaiatzat hartzen zituen etnologia laneri.

Orain, irakurleak galde lezake: zertara dator guzti hori, Goethe, bere obra eta euskararekin? Guztiok dakigu Justo Garate erudizioz beteriko gizona zela, zernahitarik asko irakurria, memoria onekoa eta literatura gai baten aurrean adibideak agertzean gauza asko ikutzen zituena. Adierazi dudana artikulua zeharkako zati tipi baizik ez da, garrantzizkoa zera da, berberaren iritzi etnologiaz gai batzuk zergatik bazterten zituen erakusten diguna. Horregatik harira datorkit, zeren nik esatea baino hobe zen berak aitortzea. Gainerakoan, bertan ikutzen duen gaian, itzulpenetan egiten diren lexiko hutsak agertzen ditu. Hor bertan, hain zuzen, lehenago alemanieratik gaztelerara haritza artetzat nahasten zituzten bezala: **elfo**, **alp**, **(h)altz**, **aliso**. *Oberón, rey de los Elfos* obra literarioaren itzulpenetan nola nahasturik aurkitu zituen.

Caro Barojak aldiz (eta on da nire saioaren une honetan hau agertzea), bere ofiziotzat etnologia zuenetik, har zitazkean gai horiek ere, eta sorginkeriaz burutu zituena oso sakonak eta zehatzak izan ziren, fenomeno horren nondikakoa, erabiltzen ziren sorgin ihizak, meatxu, atxilotze eta torturak; baina, azken helburuan, ez zen egiazko sorginik, pertsona ximple askoren baitan eta inkisitore ofizioko batzuk beren bete beharrezko ekintza justifikatzeko bai-

zik. Argitasun hau ere beharrezkoa da jende multzo baten psikologia eta historiaren erakuspi-derako.

Argi dago, objetiboki begiraturik, Garatek aditzera eman zigun bezala, sorginik ez zen zenbaitzuren zentzu ahuletan baizik. Hau da: *Sorginak heuren izate propioaren jabe dira*, horietan sinesten dutenen artean. Tristea da benetan Garateren ziurtapena, "sorginak", hobeto esan sorgintzat joak, gizaxo inozente batzuk baizik ez zirela. Baina, historia zehar sorgin ihizaz gertatua eta oraindik gaur egun ere mundu honetan askok sorginez sinesten dutela tristea goa iruditzen zait. Batez ere gai hortaz J. Caro Baroja zein Gustav Henningsen-ek burutu zituzten ikerkuntza sakonen ondotik.

Gure egunotan oraindik bazirela uste duten pertsonak aurkitzea ez da zaila, eta horietako batzuk, itxuraz unibertitateetan ikasi dutenak. Horren lekuko dugu lau egileren artean osaturiko *Sorginak eta errepresioa Euskal Herrian (bi kultur molde aurrez-aurre)* (Donostia, 1984), Gorgailuk hain ausarti plazaratuz argitara eman zuen liburua. Baina nik ezin esan nezake Justo Garategandik ezer ikasi ez dudarik, bestela ikus aipatzen dudan liburu horri *Egan* aldizkarian (1985, 3-4. zenb., 207-212. orr.) egin nion kritika zorrotza.

Nire kritika harek zentzugabeko erantzun kaxkarra jaso zuen egileetarik biren aldetik, (ikus *Jakin*, 44. zenb., 1987, 237-263. orr.). Besteok Olinpoan bizi garela uste duten horiek, beraien buruak Olinpoan ikusteko gogoia dute. Hori bai, berriz ere bibliografia zerrenda luzea aurkeztuz, baina irakur gabea edo oker irakurriaren lekuko, heuren lanean ikus daitekenez. Jakina, sorginkeriarren jatorria ezagutzeko Geoffrey Parrinder-en *Witchcraft* (London, 1958) liburua ere ezagutu beharrezkoa izaki; baina, fenomenoaren oinarrian sorgina hezur-haragizkoa ez izatean datza eta Garateren kontseilua jarraitu nuen: ez zuela merezi horretan denbora gal-terik, batez ere itsu-itsuan sinesten dutenekin.

Azkenerako utzi düt hainbeste zer esan eta zer pentsa eman zuen eta, behar bada, emango duen *Couvade (Covada)* zelakoaren auzia.

Baina, hortaz zer esan nezake? Strabonek kantabriar emakumeegatik idatzi zuenean sus-traitsua da. Emakume azkarrak omen ziren kantabresak, heuren haurrak hiltzen omen zituzten etsaien esku utzi baino lehen. Baina ohiturok arruntak omen kelta, trazio eta eskiten artean, gizonak bezain azkarrak zirenez, lurra lantzen zuten eta haurgintzaren erditzean senarra uzten zuten ohean haurtaintza arduraren ordezkotza har zezan.

Gertakari hortaz, autoreek iritzi desberdinak eman dituzte. Esaldia bera, kantabriar emakumeek heuren haurrak etsaien esku uztea baino hiltzea nahiago, era hortara aipatzeaz, azkartasun horren exenplu gisa edo ez ote zituen keltar, traziar eta eskiearren beste ohitura batzuk konparaketaz jarri? Hala dirudi.

Esaldiko hitz horiek, askorentzat zalantzarriak dira. Ekaldeko eskualde batzuetako emakumezkoen azkartasuna adierazteko exenplu gisa emana orohar kantabriarrentzat baliagarri ote?

Strabonen esaldia bera hain argia ez izateaz gainera, gaur egun, batez ere Adolf Schulten ikertzaileari esker, badakigu Kantabria ez zela Euskal Herria. Eta erromarrak kanta-bresekin izan zutela gudu aipatu hura, ez euskaldunekin (ikus A. Schulten, *Los cántabros y astures y su guerra con Roma*. Madrid, 1962). Hemen ordea, euskaldunok erromarrekingo gudutzat, XVI. mendearen azkenalditik hasi ziren bertakotzat hartzen eta XVII.an zehar askok Gipuzkoako Ernio mendian gertatua bezala jarri zuten. Baina, kontutan eduki behar dugu astur zein kantabriar kultura, antzinatik zela euskaldunongandik desberdina, Strabonen ondotik berri ematez idatzi zuten Pomponius Mela eta Cayo Plinioren deskribapenen arabera.

Baina, aitortu beharrezkoa iruditzen zait, elkarren auzokide izateaz, zezakeena dela zenbait ohitura berdintsuak edukitzea ere.

Harrigarriena zera da, Erdi Aro eta Pizkunde garaian inork ez zuela egin *covada* horren aipamenik. Eta XVII. mende hasieran, 1612. urtean, Rouan-eko eskuizkribuak, Strabon aipatzeaz, gure herriak antzinako ohiturak bizirik gordetzen dituela zioen. Kontu izan garai horretarako hasiak zirela euskaldunok kantabriartzat hartzen. Horrela, fantasiarentzat bidea irekirik utzi zuen. Izan ere, gure hizkuntza bereziaren misterioak beti ekarri dizkigu gauzarik bitxiak leporatzea.

Justo Garatek ordea, beti agertu digun zalantza susmagarrietan bere kritiko sena. Aipatua dudana *Viajeros extranjeros en Vasconia* (1942) hartan, 153. orrialdean dio, Rouen-go eskuizkribuak piztu zuela Laborde, Zamakola eta Chahorengan *covada*-ren auzia. Labordek 1809. urtean Euskal Herrian zehar egin zuen bidaia hartan zekartzan hutsak edonorentzat benetan nabarmenak ziren, liburu horren 164-165. orrialdeetan Garatek salatzen zituenak irakurtzen baditugu. Eta Zamakola zein Chaho, ez ziren eta ez dira inondik ere gure historietan serioki aintzat hartzekoak. Horien esanak, bestalde, W. Webster engainatu zuten eta berandu zen konturatu zenerako.

Julio Caro Barojak, *Los Pueblos del Norte de la Península Ibérica* (1943) deritzan liburuaren parte batean ordea, "La cuestión de la covada" zekarren, hortaz bildua zen bibliografia aztertzearen ondorenez, bere aburu eta usteak azalduz. Ez zalantzarik gabe. Baina, hala ere, testua bera orohar ikusiaz covada-ren ohitura antzinatik gure garaira arte erabilia izan zitekeela aditzera ematen zuen, nire irakurketaren arabera. Daitekeena, baina ondo begiratzeko badugu lekukotuko duen ageri zehatzik ez da inondik nabari.

Azalpen hori ez zuen onartu J. Garatek eta *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*-en, 1951-1952. urteetan (11 eta III, 7 eta 9. zenbakien 213-221 eta 80-88. orrialdeetan), "Todavía la covada vasca" izenburuz kritika zorrotza egin zion. Baina kontutan hartu beharrezkoa zaigu hori baino lehen Caro Barojaren *Los Vascos. Etnología* (1949) liburuaren lehengo argitalpenaz Garatek egin zion beste kritika hura (*Bol. I.A.E.V.*, I, 1950, 3. zenb., 158-165. orr.). Hain obra handi eta sakonarentzat zenbait laudorio agertuaren, nire iritziz, huserizko aburuetan erori zen gure gizona. Adibide xume bat emango dut: A. Campión ez aipatzea ere leporatzea. Baina euskal gaietaz arduratzen ginen guziok bagenekien garai hartako zentsurak debekatua zuela Campión-en izen-deitura soilak aipatzea eta zerbait azaldu nahi zue-nak ez zuela beste biderik isildu edo baztertu baizik. Caro Barojak ere ez zuen hortik libratzerik, eta bere izen ona ezin zitekean zalantzan ipini, zeren guk bezala sufritu beharrezko zizaion orduko errejimen hura.

Baina, holako auzi batean argitasuna egingo bada, adierazteko erak zaindu beharrezkoak dira eta horren ordeaz, itxuraz behintzat, gauzak senetik atera ziren. Modu horretan ez da erraza jakitea arrazoia non zegoen. Hala ere, ahaleginduko naiz nire iritzia ahalik zintzoen aurkeztera. Uste dut, badela garaia.

J. Garatek beste lau aldiz argitaratu zuen bere tesia, funtsean aldakuntza gutirekin baina batzutan, ohi zuen bezala, argudioak hobetuz edo agiri berriren bat gehituz. Lanok ezagutu nahi dituenak, honako hauetan aurkituko ditu: "La ciencia europea ante la covada pirenaica (siglo XIX)", *Anales de Arqueología y Etnología*, XVI (Mendoza - Argentina, 1961), pp. 35-59. Universidad Nacional de Cuyo. "La covada pirenaica y su repercusión en América", *Munibe*, X (Donostia, 1962), 125-151 (Telesforo Aranzadiren omenezko bilduma). "La fantástica historia de la covada vizcaína". *Vol. Homenaje a Don José Miguel de Barandiaran*, tomo II (Bilbo, 1966), 23-54. "La covada pirenaica. Patrañas y fantasías", *Cuadernos de Etnología y Etno-*

grafía de Navarra, VIII (Iruinea, 1975), 383-406. Azken hau: *covada*-ren gai honetan erabili zuen bibliografía zerrendaren aurkezpena baizik ez da. Eta aldizkari berean, urrengo urtekoan ordea, ikus "Adiciones y correcciones", *C.E.E.N.*, VIII (Iruinea, 1978), 307. or., Pirineoetako *covada* horri buruzko gehigarriak eta zuzenketak.

Denen muinean agertzen duena zera da, hortaz aritu izan diren egileei balio desberdina ematea. Adibidez, Strabonek zioena, ez da gauza ziurra eta antzinatiko izatez gainera ezin da argi ikusi kelta, trazio eta eskiten ohitura bera kantabriarrei era osoan leporatzen zioenik, baina hola balitz ere, gaur ezinezko dugu antzinako kantabriarrak eta euskaldunak kultura berdinekoak zirenik.

Rochefort-ek 1658an azaldu zuen lehen aldiz biarnoerazko *Couvade* (latinetikako *covare*) hitza *Histoire Naturelle et Morale des Antilles de l'Amérique* delakoan. Geroztik bi argitalpen izan zituen, Rotterdam-en 1665 eta inglesera itzulia Londresen 1666.ean. Horren esan nahiaren nondikakoa eta erabilera ongi ulertzeko beharrezko iruditzen zait Garatek *Munibe* aldizkariaren 129-130. orrialdeak ondo irakurtzea, hor bai dago gaiaren muinari dagokion gakorik nagusia, hor auziaren giltza.

Ondotik, Colomies-ek bere *Mélanges historiques* (Orange, 1675) hartan aipatzen zuen Biarnoko *couvade*. *Couvade* hitza bera Biarnokoa omen eta batzuentzat Kantabriakotzat behar zuen ohitura hura Biarnora pasatu zuten, Euskal Herriaz gaindik edo zehar. Hori oraindik ilunago da.

Baina, bi lanok zabalkunde handikoak izaki eta hara nondik hartzen duen unibertsaltasuna, geroztik soil-soilik lekukotzat hainbeste erabiliko zena. Gehienen ustezko unibertsaltasuna, zabalkunde handikoa denez, baina ez ikerketa zehatzaren ondoriozko erabakia, badijudi arrazoia birtute gabe gelditzen dela.

Hemen jadanik, gure etnografia bilketetan ibiliak ziren Vinson, Azkue, Barandiaran eta bestek ez dute holakorik inon aurkitu. Haur sorketaren erditzeetan ibiliak diren mediku eta emagin edo sortzainek ere ez. Beraz, nola daiteke batzuentzat gure mendeko honetara arte erabilia izan den ohitura horren lekukotasunik eza? Hori bai dela benetan ulerkaizta.

Johannes Herdst bezalako ikertzaile batek zioen *covada* delakoa beti oker leporatzen zitzaieela euskaldunei, baina horren presentzia iberoen artean lekukotua zegoela; Antzina feniziarrek erabilia baina gure garaira ez zela heldu ziurtatzen zuen. Aipatuarren, iberoarren lekukotasun soil bat bera ere ez zuen agertu.

Kantabria Euskal Herria zen ustez zeuden historiagileek, gaur egun, berez gelditzen dira auzi honetatik landa, batez ere Iturriza, zeinetan oinarritzen zen Desdevises du Dezert. Baina Zamakola eta Chaho ere bai, bi buru-bero, beti fantasiako historietan murgildurik zebiltzanak, ez dira inondik ere fidagarri. Azken honi jarraitzen zioten Armand de Quatrefages-ek 1850ean eman zuen "Souvenirs d'un naturalista" lanean eta Francisque X. Michel kanta biltzaile berak eta ondotik beste askok. Ikusten denez, horrela indartu zen *covada*-ren ustea.

Beste uste bat, gure denboretan oraindik erabilia zen ala ez. Jean Francois Bladé-k ez zuen sinesten, Chahok zioenetik, *couvade* ohitura euskaldunek erabili zutenik, baina bai biarnoarren. Hortik sortu ziren nahasketak, zalantzak eta iskanbilak. Argitu nahirik, Paubeko Société Scientifique-k Murray-ren ustezko teoria indartu zuen Lespy idazkariaren eraginez eta suari egurra botatzea bezala izan zen hura, Prefekturak ere parte hartzeraino, 1874an, inkestak bidez, Euskal Herrian eta Biarnon, holakorik ezagutu zen behin-betirako erabakitzeke.

Auzia bazirudien artearrik gabekoa zela. Garatek berez zuen idazkera estiloa labur eta

trakets samarrak ez zion laguntzen, ideien adierazpenak hain garbi agertzen ez dituen horietakoa zenez, bestetik gauzak gordintasunez agertzeko modua eta horrek oraindik gutiago bien onerako elkarrengana hurbil zitzen. Mindura ez bai da izaten argibide. Hala ere, astiro irakurtzean konturatzen da irakurlea, Justoren idazki moetan puntu batzuk daudela arazoaren muinera eroango gaituztenak, azken batean arrazoibiderako uka ezinezkoak. Ondoko hitzetan horiek nabarmen jartzen ahaleginduko naiz.

Philippe Veyrin-i sinesgaitz zitzaion Ahierako maisu adarjotzaile harek 1874an aurkitu zuen lekukotasuna. Baina egia edo gezurra, 25 urtetan Europan hortaz arduratu ziren guziak engainaturik eduki zituen. Maisu hura Baxenabarreko Bastidako M. Lonchard zen, zeinek esan bai zuen M. Etxekopar Ahierakoari entzun ziola: Larraide familian emaztea erditzean gizona gaxaturik oheratzen zela. Baina Paubeko Société des Scienseskoek susmo txarrez harturik ez omen zuten argitaratzerik nahi izan Lonchard-en gutun hori.

Fabian Larraide hazpandarrak, Martin Larraide Ahierakoaren semeak, gutun bat argitara eman zuen Paubeko buletin hartan, Etxekopar jauna gezurtizat hartuz, esanez beren familiari erantsi zaiona ez zela egia. Eta ondoren Londaits Ahierako intendenteak gauza bera ziurtatu zuen Etxekoparren aurka.

Ageri denez, hori omen zen inkestaren helburuz aurkitu zen lekukotasun bakarra. Eta, ikus daitekenez, ez zalantza eta eztabaidarik gabe.

Julien Vinson ere arduratu zen gaiaz, eta nola ez *Le Folk-lore du Pays Basque* (Paris, 1883) eta *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (Paris, 1891) lan bikainen egilea izanik? Batzutan onartzetik hurbil ibili omen zen, baina 1878 zioen, inoiz ez zela *covade* delakoaren lekukotasunik aurkitu, naiz eta ikertzaile sineskor traketsak hortaz sinestu, heuren begien aurrean iseka jaso besterik ez zutela lortu. Mme. D'Abbadie D'Arrast, *Causeries sur le Pays Basque: la femme et l'enfant* (Paris, 1909) liburuaren egileak ere, bere azterketetan, ez zuen ezer aurkitu.

Telesforo Aranzadi antropologoaren hilondokoa, 1951. urtean, Jose Migel Barandiaranek haren oroitzapenak argitaratu zituen Aranzadi Zientzia Elkartearen III. urteko *Munibe* aldizkariaren, 84-93. orrialdeetan. Gai hontaz argi eta garbi zioen Euskal Herriko ikerketetan ez zuela inoiz aurkitu *covada* delakoaren aztarnarik. Horregatik eta hortaz hitz egiten zutenean lekukotasun zehatzik ezaz ohartzen zela, gainera ziurtasunez zioen azken mendeetan behintzat euskaldunen artean holako ohiturarik ez zela ezagutu. Tamalgarría zeritzaio! Buschan, W. Schmidt eta ospedun beste zenbait etnologok oraindik hortaz jarraitzea. Zientziako gizon ospetsuekin hitz egiteko aukera zuen guzian aipatzen ohi zuen, behin Vienan era hortan luzaz mintzatu omen ziren Haberlandt irakaslearekin elkarrizketa eduki zutenean. Argitasun hau gure etnografia lanetan biltzailerik nagusia eta ospetsuenagandik datorrelarik, merezi du ber-berak idatzi zuen bezala saio honetara aldatzea. Hara hemen hitzez-hitz:

"En sus investigaciones del pueblo vasco no había hallado ningún vestigio de la práctica llamada *covada*, que algunos sociólogos atribuyen a los vascos. Por eso y porque los testimonios de los que han hablado de la misma no le parecían bastante fehacientes, opinaba que tal rito no había estado en uso entre los vascos de los últimos siglos. Lamentábase de que Buschan, W. Schmidt y otros etnólogos de prestigio hablaran todavía de la *covada* vasca. No perdía ocasión para hablar de ello a los más eminentes hombres de ciencia. Así, en unas conversaciones que tuvimos en Viena con el profesor Haberlandt, le hablé largamente del tema" (ikus J.M. de Barandiarán, "De mis recuerdos de Aranzadi", aipaturiko *Munibe*, III, 1951, 89. or.).

Egia da hemen bertan historiaz, ohituraz eta hizkuntzaz lanik gehien egin dutenek sekula ez dutela lekukotasunik aurkitu eta ez da sinestu ere. Horien arteko batzuk ditugu Azkue, Aranzadi, Haristoi, Barandiaran, Unamuno eta Urkixo adibidez. Eta herbestekoen artean Vinson, Veyrin, H. Schuchardt eta lehenik baiezkotan zegoenarren gero bere burua damurik engainatuzat aitortu zuen Wentworth Webster anglikanoa. Edo Meyer-Lübke eta Stoll, W. Schmidt, Buschan eta beste batzuk ongi ziotenez, hemen bertan urteak ikerketan aritu izan direnek frogarik aurkitu eza eta gainera sinestu ere ez, ez zeritzaiela onargarri. Stoll suizar irakaslea ordea, oraindik urrutiago joan zen, esanaz, antzina ere burugabekeria iruditzen zitzaiola holako ohiturarik izatea.

Aldiz, J. Caro Baroja, *Los Pueblos del Norte* (Donostia, 1973) liburuaren bigarren agerrialdian, 215-228. orrialdeetan, bibliografiaren maiztasunean oinarritzen zen, gehiengoaren uste bezala, *covada* izan zenaren oinarritzat. "Unibertsaltasun" iritzia noski, baina erantzun kaskarra. Nere ustez, era honetako gai batean ezinezko deritzat argitasunaren bidea lojkarik gabeko mekanika hutsaren arabera uztea.

Garatek *Munibe*-n argitaratu zuen lanaren 128. orrialdean, Labastide-k euskara feniziar hizkuntza zela esan zuenetik, ez ote zioten ba iritzi horretan jarraitu Josept Garat, Juan Jose Mogel, Victor Hugo, Emerson eta Sarmientok?

Beraz, bibliografiaren maiztasuna ikerkuntzetan ez da beti arrazoiaren onargarri. Bibliografiaren erabilerak era askotariko teknikak eta irakurketak ditu. Adibidez, bibliografiaren arabera euskararen nondikakoa aztertuko bagenu, XVIII.etik Ibero hizkuntzaren esparrukotzat genuke, baina XIX.aren azken partetik Caucasokoa.

Baina gure hizkuntza historia baino lehenagotik hemen dago. Ez du inondik etorri beharrik. Izango ditu mailego hitzak iberotikakoak, bai keltengandikakoak ere eta, batez ere, latinetikakoak. Hizkuntza guztiak dituzte mailegoak, prestamenak, baina bere tipolojia berezia gordeaz iraun du eta oraingoz, jatorririk inork ezin dezake ziurtatu Euskal Herri bertakotzat baizik.

Agian, honen arabera, ikusi beharko, Justo Garatek *covada*-ri eman dion astinaldiaren ondorenean bibliografia maiztasunak nora jotzen duen eta zer eman dezaken.

Hala ere, gauza bat dago argi, arazoa zientifikoki lekukotzearena, arrazoi bidezko indarrean oinarritzearena, eta hori oraingoz ezinezko deritzat. Uste dut, Garate bide onetik ari zela, adierazteko modua hain egokia ez izanarren. Holako gai eztabaidagarri bat ez bai da ustearen araberako, ez eta hauteskunderaz erabakitzekoa. Eta izatearen baitan berez mirakulu edo fantasiaren zale direnek jakineko bidea hartuko dute, eta zentzuzko arrazoi frogen jarraitzaileek Tomas Santuarena, ikus eta sinets.

Beraz, Justok zuhur jokatu ez zuenik ezin esan dezakegu eta laburbildurik analisisa egin behar banu, honako ondorio hau aterako nuke:

1) Strabonen aipamen hura, zuzenean behintzat, ez dagoela hain argi Kantabriarregatik zioenik.

2) Euskal gaien azterketetan nortasun nabarmena agertu zuten autoreek ez zutela *covada* delakoaz ezer aurkitu eta ez sinestu.

3) Asko direla ohitura bitxi hori ontzat emanaz heuren idatzietan aipatu dutenak? Zer iturri erabili zuten jakin behar. Aldi berean, horien artean fantasiak noraino jokatu duen neurkai-tza da.

4) Ziurtatuko duen lekuko zehatzik eza. Eta ontzat har ezinezko bibliografi maiztasunaren oreka.

5) Haurgintzetan laguntzen duten sendagile edo emagin-sortzainek hortaz ezer ez jakitea.

6) Inkestaren ondorioz, lekuko bakarra, Ahierrako Larralde familia, udal idazkari batek aitortua beste batek esan ziolako; baina famili bereko semeak ukatua.

Horiek dira J. Garate eta J. Caro Baroja adiskideen lanen irakurketatik atera ditudan ondorioak. Fantasiadunak har bezate iruditzen zaienetik; zentzudun arrazoi bidez egia aurkitu nahi dutenek ere jarrai heurenetik. Baina nik neuk, bi lagun zirenen auzian ahalik analitiko-koen jokatu dudan ustetan, Stoll suizar irakaslearena jarraituko dut, gizakiaren naturalezari begira, ez antzina eta ez orain, ez han eta ez hemen, ezinezko iruditzen zaidala *covada* delakorik.

Zentzutasunak beti emango dizkigu lanak. Juan Antonio Mogelek *Peru Abarka* liburuko esaldietan agertzen duen bezala: "Egia, askoren erregarria".

Justo Garatek etnologia gaiez egin zituen lanak, bere orokortasunean begiratuko bagenitu, laster ohartuko gara oso baliagarriak direla. Baina, batez ere, kontutan edukirik, sendagiletza bere ofizioa izanik eta zientzia honen erantzukizun ardurak eskatzen duen deontologia zuzen betetzeaz gainera, lanok sakontasunez bere herriko kulturaren ikerkuntzaz eskaintzea, ez dela normahik egin dezakeana, ez eta erraz eskertzekoa. Irabazia du ondo merezi zuen ohorea.